

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maritxu Goitia Zuloaga

*Errenteria,
Gipuzkoa
(1923)*

Aurkibidea



Biografia



Lekunberri baserrian jaio zen, ama hara joan zelako erditzera, baina Erdiko kalean bizi ziren. Aita Oiartzungoa zuen, paper-lantegian egiten zuen lan. Ama, berriz, Igeldokoa zen jatorriz, baina Erreteriarra joana bizitzera. Bost senidetan laugarrena izan zen Maritxu. Eskola publikoan hasi zen ikasten, eta errepublika garaian mojetara bidali zuten. Zirkulu Karlistan ikasi zuen doktrina. Gaztetan hasi zen lanean, Sociedad Tejidos de Lino ehundegian. Markinakoa zuen senarra.

Zintak

ERR-050

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2011-03-29
- **Iraupena:** 97 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Errazkin, Aitor

Pasarteak

1. Erdiko kalean ezereen faltarik ez

- **Erref:** ERR-050/002
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:03:02. **Bukatu:** 00:06:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Erreteriarra Erdiko kaleko etxe batean bizi izan zen Maritxu. Hiru solairuko etxe arkupeduna zen, armarriduna eta "Jesus hombre salvador" izkribua zuena. Errentan hartua zen eta otar-egile batek lan egiten zuen beheko solairuan, Joxe Olaziregik, era guztietako otar eta saskiak egiten zituen: okindegitarako, arrantzarako, baserriko hainbat zereginerako... Erreteriarra Erdiko kaleak, motza izanagatik, negozio eta zerbitzu ugari biltzen zituen: ehorztetxea, harategia, txurro-denda, mertzeria, burdindegia, taberna, herriko eliza eta herriko etxea bera, besteak beste.</p>

Transkripzioa

-Ta? Zuek bizi zineten etxia nolakua zan?

-Oso antiguala. Zun arkupia. Zun eskudua. Ta jartzen zun "Jasus hombre salvador", letra hoiek. Eta beti hola ezautu gendun, ta uain'e halaxen dago. Geo zittun bi pixu. Ta bihan zen xesterua, xestuak iten aitzen zena, bai, hala da, holaxen, nola, zea, baserritako, arrantzaliientzako, panaderuantzako, [pues] xesterua gendun. Ta zitun bi pixu. Bueno, bi ez, hiru. Hiru.

-Zuek han rentan bizi ziñaten?

-Bai, bai, bai.

-Eta xesteruak iten zitun ordun zestuak diferentiak, asko. Xestu bakoitza bere erabilera...

-Bai. Batzu zian panadeitako. Beste batzuk arrantzaliientzako. Beste batzuk, zera, baserritako. Ta basarriyan'e pues xestu izaten zian, batzuk belarra biltzeko, beste batzuk sagarrak biltzeko... Eta bai

-Ta xestuen izenak?

-Zeinek.

-Badakizkizu, xestu hoi izenak...

-Bai. Jose Olaziregi. Bai, Joxe Olaziregi!

-Joxe Olaziregi zan xestuak ite'zituna?

-"Si, si, si, si... ¡No me confundas!" Si. Bai.

-Joxe Olaziregik iten zitun xestuak eta xestuen izenak? Igual, bat izango zan "kopa", bestia...

-Pues, pues, arrantzaliientzako, pues hola, luziak... Baserritarrantzako kopak, geo bestia zen txikiyagua, sagarra biltzeko, panaderuak'e haundiya, o sea, ... Ta geo sillak'e hark konpontzen zittun, gauza asko iten zittun! Bai... Bai... Erdiko kalia genittun, [...] kale motxa da, baña han ez zen gauzik ez zen /etzen/: funeraria, karnizeiya, txurreriya, merzeriya, ... Zenbat gauza zian? Zuk laundu nazu zenbat gauza zian! Gauza asko!

-Bai, bai,

-[...]

-Osea, izaten zen, bai, izaten zen, kilometruan [...] kilometruak ez, kilometroik ez zuen /etzun/ ta, esto, klean, como... Nola esango nuke nik hori. [Gipu, osea] European zen konpletuena zela esaten zuten, "en conformidad de"...

-Erdiko kale hori?

-Bai... Erdi erdiyan. Ayuntamientua, eliza, dena...

-Hantxe.

-Hantxen, bai. Dena batian.

-Orduan etzitzazizuen ezer falta hor...

-Ez, ez, ez, ez, ez... Denak, denak. Gero topua, nortia, autobusa Donostirako, Hondarribirako, dena bertan.

-Toki ona, orduan.

-Bai. Errenteia zentrua, zentro-zentrua, zentro-zentrua.

2. Klean jostatzen, aski lasai

- **Erref:** ERR-050/003
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:06:29. **Bukatu:** 00:08:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Soka saltoan, txingoka, eta gisa horretako jostaketetan ibiltzen ziren txikitan. Círculo Carlista n jasotako panpina berde bat bazuela gogoan du Maritxuk, baina gurasoek erositakorik, bat ere ez. Errege egunean ezer gutxi jasotzen zuela dio.

Transkripzioa

- Baiña, lehen ez zan ibiliko hainbeste kotxe.
- Ez, Uuuuu! Ezta pentzatu ere! Gu, zea, kalia lasai aski ibiltzen ginen jolasten! Edo Jostatzen! No jolasten ez. Jostatzen.
- Eta zeekin jostatzen zenuten?
- Pues, [loka] sokakin, saltoka, geo txinguka esaten gendun lurrian numeruakin ta han harri koskor batekin saltoka, eta geo, berriz, bat hor jarri ta bestia hemen jarri ta [...] Holako jolasketak! Uain bezelako jostailuak ez.
- Zuk panpiñik-eta, euki zenun?
- Bai. Biño behin, erregetan, ez nola zen [...] panpiña... Egiya esateko, Centro Carlistan emandakua. Muñeka berde bat, txapela berdiakin, soñekuakin, han emandakua. Gañontzen, eosiya, erregietan'e ez, erregeik, keba...
- Hori, muñeka hori zer zan kartoizkua?
- Ba al dakit nik kartoia ta zer zen? Ba, hala izango ze... [...] holaxe, koxkorra zen eh! Hoi bai! Gañontzen gurasuak erosita keba! Uan bezela ezta pentsatu're! Erregeitan'e ez. Ez, ez, ez, ez... Gu ixtuago bizittu gea.

3. Gurasoei berorika eta elkartasuna auzoan

- **Erref:** ERR-050/004
- **Iraupena:** 0:05:10. **Hasi:** 00:08:03. **Bukatu:** 00:13:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:

Maritxu dotrina ikastera joaten zen "Círculo Carlistara". Kaleko giroa euskalduna eta errespetuzkoa gogoratzen du. Gurasoei, kargudunei eta ezezagunei, bere senide guztiek bezala, berorika egiten zien berak ere. Garai bateko auzoen arteko elkartasunaren, baloreen eta fedearen falta sumatzen ditu gaur egun.

Transkripzioa

- Bai. Esan dezu Circulo Carlista zeola, ta eongo zan...
- Ni harea joaten nitzan dotriña ikastea. Eta umiak, pues, umiak. Han erregalatu ziaten.
- Eta batzokira jute'ziñan zerbaitetara?
- Ni ez.
- Baña, egongo zan... Beste zentro batzuk ere eongo zian: republinua, ta batzokiya, ta beste batzuk. Zu ezea gogoratuko umia izango ziñan ta...

-Ni goatzen naiz. Ni joaten nitzan Circulo Carlistara.

-Ta nun zeon hori, Circulo Carlista?

-Pues nee itxian bazterrian! Ta han dotriña, kantatzen, ostiralero errosaiyua erresatzen lurrian belauniko jarrita, bai jauna! Gauza hoitako. Han [nik, e...] eakutsi ziaten San Inaziyon martxa, ta kanta asko.

-San Inazion balsa?

-San Inaziyo gure patroï haundiya.

-Orduan, euskeraz kantatzen zenuten han?

-Han daneta! Euskeraz, lehen eskeraz hitz egitten zen, ta danak senidiak bezela, nahiz uaingo gauza ez zen lehen. Lehen alkarrekin konpianza geyo. Maitasuna [edo] geyo. Nahiz gurasuak errespetatzen genittun. Nik nere gurasuai beti beorrika hitz eitten niyon. Beti eh! Ni [...] ez, ne senidiak e'bai. Ta honek, iloba izan arren, honek zuka, ta nik esaten nion: nola litteke hoi? Nik beorrika eta honek zuka. Hoi da konfiantz(a)? Konfiantza klaro "que" nik nere gurasoekin konfiantza, biño errespetua. Eta nahiz medikuai, nahiz apaizai, nahiz persona ezautzen ez duzun [...], danai beorrika. Lehen hitz eitten zena. Ta lehen zen, ni neetzako, [...] Nola esango nizuke... Nei iruitzen zaittena esangoizut; ni bestiakin ez naiz sartuko. Nei iruitzen zait lehen alkarrekin launtzeko, maitatzeko ta bihar bada launtzeko ere bai; ze, bizilagunakin e'bai. Lehen ez gendun atia sekula giltzakin ixten. Atia irekitzeko ez giñan bildurak. Oso, beste, beste modu bat zen. Zu jun, osea, oliyua edo, azukria edo, falta zitzazula edo gastatu zitzaizula, zergatikan juxtu ematen baizen, ez oain bezela, oain bezela, zea joan ta kantidadia ekarri! Libra bat oliyo, libra bat azukre, eta gero ez ziren /etzian/ izaten gauzak gaur bezela preparatuak. Eskatzen zenun libra erdi bat edo libra bat azukria edo garbantzua, eozein gauza, ta itten zizuten papera, zea, paperian bildu ta geo pisuan pisatu eta ematen zitzaizun. Eta ez, galdetu gabe, osea, "Aizu, emango al diazu azukre pixka bat? Bukatu in zait. Geo ekarriko'izut, kiker bat." Ta zuk.... Hola, hola bizitu giñan. Ta ikusi ezkeo inorei launtzeko zea zeola, laundu. Nik egiya esango'izut. Nik oso diferente haundiya bilatzen dut. Oso, uain, ixilik,... Lehen emakumia gañea iten zen errespetatu. Emakumiantzako halako errespeto bat. Oain bezela? Uaingo jazkerak, uaingo ibilerak, uaingo hezkuntzak? Lehen, maldiziyua aittu eta're, atentziyua deitzen zen. Ni goatzen naiz: nee itxia, zea zun, bi kaleta, kale batetik kalea atentziyua deitzen, emakume bat. Ta beste allekakua, berriz, gizon batek, kalian maldiziyua aittuta. Lehen holako errespetua zen. Lehen, gaztian aurrian, umian aurrian, etzen eozein gauza esaten. Osea, izaten zen errespeto bat. Uain bezela, uaingo lizukeiyak eta uaingo gauzak? Ezta pentzatu ere! Ezta pentzatu ere! Ezta pentzatu ere! Ta lehengo fedia! Lehengo kristautasuna! Nere aita, zeruan [eongo da ia,] noski! Harrek txapela eantzi, ta jartzen zen mahayian, bazkaltzeko, afaltzeko ta danetako. Hara: aita jarri da, txapela kenduta. Ta errespetu hoi.

-Errezatu ingo zenuten bazkaldu aurretik'e...

-Klaro, ui, klaro! Aitak itten zun txapela eantzi, eta ia seinalia. Ta geo eunero, eunero-eunero, familiyan errosayua errezatu. Lehenoko bizimodua, gue itxian hoi izandu zen. Ta errespetu haundiya elkarrentzako. Nahiz anai-arrebantzako, errespetua. Ta gurasuakin ze esanik ez. Denak.

4. Eskola publikotik mojetara

- **Erref:** ERR-050/005
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:13:13. **Bukatu:** 00:17:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Umetan fede kristauan hezitakoa da Maritxu eta sinismen berei eusten die gaur egun ere. Txikitan eskola publikoan ibili zen arren, errepublika garaian eskola kristaura aldatu zuen amak, ez zuelako nahi alaba hezterik gurutzea ukatzen zuen eskola batean. Mojen eskolan josten, brodatzen, kantuan eta errezoan trebatzen zituzten haurrak. Neskak eta mutilak bereizi egiten zituzten, garai batean gizonak eta emakumeak elizan bezalaxe.</p>

Transkripzioa

- Ezlijiyuak pisu haundia zekan lehen.

-Bai. [Lehen...] Nik neonek, uain bertan'e, nik fede haundiya dut. Nik lehengo zea segitzen dut; lehengo martxa, igual-iguala. Eunero joaten giñan mezeta, errosayoa... Lehen eliza zen kontua. [...] hamahiru urtekin hasi nitzan, eta... Zea... Uain bezela kalia pasiatzen ez. Neska gaztiak'e, fabriketatik eta atera, ta lehen itxian josten zen erropa, zergatikan uain bezela ezpaitzen erropa josiyik saltzen. Saltzen zien, zeak, piezak, eta josten ikastea! Uain bezela kalia hola pasiyuan? Igande arratzaldian pixka bat. Ta neska-mutilak eta? Keba! Ta uaingo posturan? Bu! Ez, ez, ez...

-Nola joan ziñen zu josten ikastera?

-Pues, zea, itxe batea. Osea...

-Jostunakin?

-Ni bezela, neska gehio... Hau ere josten iblli zen, ni're bai, orduan denak! Uain bezela, botoi bat jartzen ez dakitenak? Ez, ez, ez, ez... Jersiak itten, galtzetinak itten... Osea, zaharrenak txikiyagoai, zea, itten... Dena hola, aprobeztatzen. Eta otordua're, illa... Eunero ez, baño gehienian babarrun gorriya izaten zen. Ta geo aza. Eta azai odolkiya sartu eta handikan puska bat, uain bezela portriak eta ere ez. Beste, beste, beste modu bat, beste modu bat. Igandia etorri ta meza nausira. Arratzaldian bezpeeta. Ni, egiya esan, eskola publikuan-edo hasi nitzan. Baño republika denbuan gurutzia kendu zuten. Ta gurutzia kendu zutenian, nere amak etzun bere alaba han ikusi nahi. Ta in niñun Hijas de la Cruz, monjak zian, ta kolejiyo hartara eman. Ta han eakutsi ziaten edukikaziyo haundiya. Dena erderaz eh! Hoi bai. Nik dena erderaz ikasi dut.

-Republika garaian ere bai?

-E?

-Eskola publikuan ere bai dena erderaz?

-Ez. Nik esan nahi dizut, nik... Bai, orduan bai! Dena erderaz itten zen. Ta zean e'bai, Hijas de la Cruz-etan'e, Hijas de la Cruz zian mojak... Ta nik, egiya esan, ne oraziyuak, ne konfesiyuak, ta nik gauza hoik danak, uain bertan'e erderaz itein'ttut, hala ikasi nun ta! Ta hola...

-Ta eskola publikuan ze ikasi zenun?

-Txikiya nitzan! Baakizu, [ni], zea, zenbat urtekin jungo nitzan mojeta ba!?

Igual, eskolan hasi nitzanian, eztakit ba nik zenbat urte izango nittun?

Bost, ez dakit /eztakit/, bost urte edo... Ez dakit, ez dakit /Eztakit, eztakit/!

Bai. Orduan [...] gurutziak kendu zituzten...

-Eta han, eskola publikuan, gogoratze zea zein zan maistra?

-Señorita Teresita. "Porque claro", parbuluak edo esaten zen, txikiya, geo ia monjeta.

-Eta, monjetan, ze irakasle edo euki zenitun?

-Monjak.

-Monjak? Bat baño gehio...

-Bai. Segun ze edadia, [...] ta oso ederki, errezatzen. Uain bezela ez ziguten deportia ta holako gauzik itten. Arratzaldian, bainika ikasten, osea, dibujuak, osea, pixka bat bordatzen, josten, edo puntu itten, holako gauzak erakusten ziguten. Ta gero esaten genun eunero errosayua, edo kantatzen, zea, josten ta ai giñan bitartian. Bai...

-Han denak neskak izango zineten?

-Bai. Muttikuak ibiltzen zian zazpi urte arte bakarrik. Zazpi urtian ia atera [behar] izaten zuten. Lehen, lehen etzan neska-mutillak. Keba. Keba, ez, ez, ez. Elizan bertan'e, lehen, gizezkuantzak, alkiak zian, ta emakumiantzak, sillak. Emakumia, zea, sillaik gabe geatu, ta nahiz alkiyak hutsak eon, edo lekua izan, lurrian belauniko. Errespetua. Hala errespetatzen zen.

-Orduan, elizan ere aparte?

-Bai. Lehen bai. Aspaldiko kontua dia, eh! Aspaldiko kontua dia.

5. Emakumeak taberna kanpoan zain

- **Erref:** ERR-050/006
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:17:58. **Bukatu:** 00:18:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Maritxuren ustez alde handia dago garai bateko eta gaur egungo emakumeen artean. Ez ditu ongi hartzen egun kalean ikusten diren hainbat jarrera eta janzkera.</p>

Transkripzioa

-Lehen emakumiak ez zian tabernetara sartzen.

-Ez. Ezta pentzatu ere! Be gizona edo senarra, nahi duzun bezela, hua sartuko zen ta andria geatuko zen kanpuan, hua atera arte. Uain bezela? Ta zigarrua erretzen ta, ta... jesus, maria ta jose! Eaten ta, uaingo ibilerak eta, uaingo erretiruak eta, keba! Lehen, zortzit'ardik, udaran edo beatzitako ia denak itxea. Ta mutilak beak e'bai, [...] neska bakarrik, mutila beak'e... Eta herriko festak, madalenetan izaten zian, ta orduan hamabiyak arte edo ibiltzen baziñan, biño eguna zabaltzeko, denak itxea! Hoi bai. Hoi bai.

6. Ama dantzazalea eta aita gizon serioa

- **Erref:** ERR-050/007
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:18:48. **Bukatu:** 00:20:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Maritxuk ez du sekula dantzatzea maite izan; ama, ordea, dantzazale amorratua zuen. Aita oso gizon serioa eta hitz gutxikoa omen zen.</p>

Transkripzioa

-Zuek dantzara jungo zinaten... igandetan...

-Ni, ba ni enaiz /ez naiz/ dantzariya izandu. Ez. Sekula ez naiz baile batea sartu. Herriyan izaten zen, Alamedan, izaten zen [band...], zea, musika ta geo tarteka ttun-ttuna. Biño ni dantzariya enaiz izandu. Ta ne'ama [batez'e] zan dantzaia. Zenbat bider esaten zun: "Nik ez dakit ze alaba dittuten! Hok...", zea, harek filarmonika aittu orduako, jartzen zen hua!

-Bai?

-Bai. Donostiarra zen. Ta oso emakume salada. Eta argiya. Hua ez zen / etzan/ lotzatzekua iñungana juatia. Ez, ez, ez, ez. Erderaz'e, zea, aitzen zen trinkilin-trankullun, biñon aitzen zen, erderaz hitz eitten'e. En kanbio atta bat'ez. Ba ama bai. Bai. Ez zun ondo hitzeiten aldeako, eh! Biño, biño...

-Ta amari, dantza itia gustatzen zaitzaion, ta kantatzia ere bai?

-Bai, bai, bai... Aita ez. Aita zen oso seriyua. Gizon seriyua ta errespetokua. Oso seriyua. Hitz gutxikua. Nahikua zun, bakizu, seniden artian, pues, umian kontua, hasarretu edo hola, bueno, haserratu, baakizu, eozein txoakei! "Ala, aita heldu da, eh!" Ta akabo! Ez zan gehio esan beharrik!

7. Umetako zenbait abesti eta istorio

- **Erref:** ERR-050/008
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:20:12. **Bukatu:** 00:22:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

<p>'Euskaldunak gera', 'markesaren alaba'ren bertsoak, aitonak kontatutako Santa Kruz apaizaren kontuak eta halakoak ditu Maritxuk gogoan.</p>

Transkripzioa

-Ta goguan dezu amak umetan kantatze'zitun abestiyak?
-"Euskaldunak, euskaldunak gera, euskaldunak betiko izango gera. Euskaldunak ziraden gure gurasuak, baita bai ere fede haundikuak". Hoi [] zen, ta han kantatzen men zuten. Hoi goatzen naiz, eta geo, "Markesaren alaba"n, zea, bertsuak eta... Geo, zea, itxea ezkondu zen, Oiartzuna, eta han aitona bizi zan uaindikan, ta aitona harek kontu asko [konta] esan zizkan, zea, karlista denboko... Gerran ibiliya, San Juan, oi, San Juan ez... Santa Kruz nola ibiltzen zen, ta holako [kon] hrek bazakizkin!
-Apaiz Santa Krutz apaizan kontuak?
-Bai... Nola baserrian sartu ta, kopa burutik bera sartu ta, zea, belarra ebakitzea balijuake bezela nola ibiltzen zen ta, hilak nola ibiltzen zittuzten karruan gañian, behiak aurrian zituztela ta, holako kontuak! Ta ze esango'izut ba nik gehio?
-Bai, ta zure amak umetan hola umiak lo, lo iteko kanturik edo, kantatzen zun? "Haurtxo maitia" ta holako...
-...
-Umia altzuan...
-Bai, bai, bai, bai, bai! Konprenitze'intzut! Eztakit [hoiesateko] ze kantatzen zuen. Ez naiz, ez naiz, ez, ez naiz goatzen. Enaiz goatzen hoi. Egiya esango'izut. Igual "Andre madalen" ta kantatuko zittun! "haurtxo txikiya" ta hoik ez. Ez orduan ez. Ez.

8. Gerra Zibila hasi zenekoa

- **Erref:** ERR-050/009
- **Iraupena:** 0:10:00. **Hasi:** 00:22:04. **Bukatu:** 00:32:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

Laburpena:

<p>Hamabi urte inguru izango zituen Maritxuk Gerra Zibila hasi zenean. Ongi gogoan ditu erreketee Erreterian egin zituzten sarrera saioak, eta baita osaba-izeben baserrian milizianoak nola egokitu ziren ere. Behin soinean zeraman jertse gorri bat kendu omen zioten eta bandera moduan eduki omen zuten teilatuan. Anaia eta ama bizitza galtzeko arriskuan ibili omen ziren, ganaduari bazkatzen emateko borroka piztua zen tokietatik igaro behar izaten baitzuten. Gerraren kontra dago Maritxu, senideen artean sortzen dituen hausturak penagarriak zaizkiolako, batez ere. Dena den, gerrate zibila bukatu eta gerraostea gogorra izan bazen ere, euren etxean diktadura urteak bakean eta lasai igaro zituztela dio.</p>

Transkripzioa

-Ta zu akordatze zea gerra nola hasi zen?
-Bai. Gerra hasi zanian nik hamabi urte, hamabi urte... Bai, orduan, bai, martxuan, osea, apirillan in nun, ta gerra hasiko zen, pues, en julio. Bai. Nola Errenteiyan izan genittun, gerra, osea, bai...
-Zer gertatu zen Errenteiyan?
-Errenteiyan ze gertatu zen? Gauza pranko. Uain; danak esatia ba... Gue familiyak'e sufrittu zun. Odolian. Ta ez dakit komeni den esatia.

-Ez badezu nahi ez. Ze jun zian soldadu? Ala bestela...

-Eh?

-Soldadu ta ibili zian? Soldadu junda?

-Oh, soldaduak, Jesus! Itxian! Gue ama gaixuak makina'at erropa garbitu ziyoten! Zea, milizianuak: ke moruak heldu ziala ta, zea, petxuak ebakitzen zittuztela ta, gezurra! Sartu zian trankillamente! Lehendabizi sartu zian, zea, herriyan [...] hola menditsu, bueno menditsua edo, ta han in zuten, atzea joan behar izandu zuten. Ta hil zian sei edo zazpi erreketete. Eta bat geatu zen hanketik erittuta, nere aitona ta amonaren basarriyan. Aurrea joateko gauza etzelakoz. Ta nere izeba gaxuak, [...] gixaajuai ze ingo ziyon! Kafesnia eman, ta geo [guk] kura in. Eta gizaajuak sos zittun sosak nere izebari eman ziyon, hiltzen bazuten'e meza ateratzeko. Ta geo milizianuak eta gudariyak eta danak nahaste'zian, in zian baserriyan jabe. Asturianok'e bazian. Biño Errendeiko jendia're bai ta... Eta oyian, batzuk nahi zuten hil. Beste batzuk ez. Been artian diskutitzen. Eta atzenian in zuten hil. Nik aittu izandu dut, erittua, ezin dala hil. Geo, igual gizajua hankian, hankian zea, bala zulakoz aurrea joan ezik. Ta geo, hil zutenian, pues, gorputza in zuten zakurrak bezela kanpoa bota ta han... Ta nere izebak, nere osabak, nere amari esan ziyon: lehen, nere osaba ona izan baldin bazun beretzako, faborez, hango mutil gizaajo hua handik biltzeko. Ta bildua zeola. Ta nee amak esan ziyon etzetz. Bea orduan handik heldu zela, eta hua han zeola. Eta baserriya pues, eendu zen milizianuan mende, eta ne izebak, gertatu zen familiya izatia. Ta nere izebak nahi zun ikustea jua. Ta bea bakarrik jua gabe, esan [niño], esan zian neri aber galdetuko niyon. Ta ni joan nitzan jerse gorri batekin. Eta izate izan behar izaten zan, harrea joateko, zea, kontrola pasa behar zan. Ta ayuntamentura joan ta txartela bat atera. Eta kaletikan, pues, bastante, bai, zenbat denboa egongo da baserriya hua? Este... Geo jua zian milizianuak. Aber baserri harta joan giñan emakume bat neska koskor batekin, jerse gorriakin. Ta nere jerse gorriya banderaz eendu zen tellatuan! Horrebeste denbuan! Nola... Ze nahi zu? Nere jerse gorriya bandera jarrita!

-Milizianuak bandera moduan jarri zuten...

-Esan dizut ba! Milizianuak, eta gudariyak eta danak alkarrekin zian. Ez, asturianuak'e bai. Zergatikan nere ama ta nere anaia, klaro, osaba ta izeba, berriz, han balak baizian, balapian, ta han ez eotetikan, pues, kalea jaitsi zian. Ta, baserriyan, badakizu, behiak eta ganaduak, ta jaten eman behar! Ta nere anaia, hamabost, hamazazpi edo hamasei urtekin, joaten zen ta nere amak, bakarrik utzi gabe beste [biak], iten zion lagundu. Ta eunero joan behar izaten zuten zergatik jaten eman, esnia jaitsi, ta gauzak iteko. Ta aitzen zian balan soñua beak aitzen zutela! Baiño, ez pentsatzen! Ez konprenditzen... Ta holaxen, bai.

-Arrisku haundia.

-Arrisku haundiya. Bai. Arrisku haundiyan ibilli zian. Eta, barkatu, ..., e... Geo behintzat denak bizitu giñan erdiko kalia hortan. Eta geo, hurrungo sarrera in zuten, lehendabizi, ez dakit /eztakit/ ze hilletan zen... Geo in zuten berriz reketiak, berriro, ta in zian el trece de septiembre, sartu. Ta haik sartu zianian, pake-pakian. Han [etzan deus'e] gertatu.

Ayuntamentura joan zian, ta bandera espainola jarri zuten... Ta han etzen ezer'e gertatu. Ta elizan, parrokiyan, milizianuak eendu zian. Gu lehendabiziko gauza, ni bezela beste asko, ni umia nitzan biño, bestiak egitten zutena! Zea, eliza joan, eliza garbittu, hurrungo egunian meza emateko moduan jartzeko. Eta hala. Ta haik reketiak! [Iñoi] deus'e in! Kalian kantari ibiltzen zian gizaajuak! Ta guk amistadiak in genittun! Baakizu. Ni mintzat... Guen gerra hoi izandu zen. Geo, pues, anaia're gerra joan behar izandu zun, hemezortzi urtekin, ta nere ahizpa bat'e, gaixua, [zeruan] gerta dedila! Biño hemezortzi urtekin, itxe batian eskailerak

fregatzen ai zala, interina, hua're kartzela eaman zuten. Ta Erreteriko gudari batek. Ezaunak. Ta geo, eon zian, eon zian zentro liberalian. Ta itxetikan otordua-eta ematen zitzaiola. Ta gue ama, nere ama, bere ama, pues juan zen bazkaiyakini beti bezela, ta han etziala. Ui, nun dia! Nun zian jakin ez! Geo enteratu zian, edo enteratu giñan, barko zahar batian Donostira eman zittuztela. Ta euki zittuzten barko zahar batian Donostia, oi Donostian... Bilbaoan, gaixki esan dut: Bilbaoa.

-Hori zure ahizpa?

-Bai. Nere ahizpa. Ta nere ahizpa bezela, beste Errenteiko geyo're. Zergatikan oain esaten ai dia alleka bateko kontuak. Biño bitakuak jakin ber dia. Gerra gauza tristia da. Nahiz batentzako, ta nahiz bestiantzako. Zergatikan izaten da alkar ezin ikusiya, zea eztakit zer, baakizer, heriyotzak... Nik hoi esaten dut: gauza oso gauza tristia da. Ta batez ere hemengua; senide artekua. Senide artekua, hoi zen gauza tristia. Eta geo, Frankok, nola ez dakit nola moldatu zen, in zun konbeniyo bat, ta etorri zian kartzelatikan, bueno, kartzelatikan ez, barkotikan, el once de octubre. Nuestra Señora de Begoña. Hua poza! Hua poza! Gaxuak! Ta Errenteitikan beste geyo're, gizonezkuak, eman zittuzten kartzela. Gizona gizaajuak, fabrika ta errosayua ta eliza beste kontuik ez! Karlistak zialakoz! Ta norbeak ez al du deretxua be opiniyua izateko? Ta in zittuzten bost hil! Asalto batian, en El Carmelo.

-Bilbon?

-Bilbaon, bai. Attona gizaajuak! Jesus! Edadekuak eh! Bat baserrikua! Bestia, fabrika, galleten lanian aitzen dana, bestia fabrika haundiyan, bestia mutil gaztia uaindikan, bai, zea, Hijas de la Cruz, Agustina hoiek baatzan lana iten ziyotena. Jende sentzillua! Haik'e han geatu zian! Ta beste asko, bueno, asko baitzian! Ta hoik ez dittuzte kontu hoiek esaten uain. Uain dana beste allekakua!

-Dena esan behar da.

-Nik hoi esaten dut! Dena esan bihar da. Jakin bihar da. Nik konprenitzen dut. Nahiz alleka batian ta nahiz bestian, itten dila gauza asko. Horregatikan, gerra tristia da.

-Sufrimentua ekartzen du gerrak.

-Hombre! Ta geo, pues, gerran gertatzen dena! Geo dena mixeriya! Hoi bai, pasatu behar izan genittun, pues, gosia, dana razionamentua, pixkat altxa bitartian, baño geo altxa zanian gu primeran bizitu giñan! Pakia, berrogei urtian! Eta geo, eliza, aiba, zea, eliza libre! Eliza libre!

9. Ahizpa itsasontzi batean preso

- **Erref:** ERR-050/010
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:32:04. **Bukatu:** 00:32:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

Laburpena:

<p>Maritxuren ahizpa Karlista izateagatik ontzi batean izan omen zuten preso, erreteriar gehiagorekin batera.</p>

Transkripzioa

-Ta zure ahizpa esan dezu euki zutela barku batian.
-Bai.
-Han preso?
-Preso, bai, bai.
-Barkutik jaitsi gabe?
-Bai, bai, preso, preso. Handik, kartzelan eon biharrian'o, pues barkuan. Barkuan, barkuan eman zittuzten ta.
-Bera ez zan eongo bakarrik, beste emakume batzuk? Ala gizon ta emakume?
-Ez... Emakume... Errenteitikan bertatikan'e bazittun, makina'at. Bera bakarrik ez zen /etzen/.
-Emakume gehio?
-Bai. Amonak e'bai.
-Amonak e'bai?
-Bai. Amonak e'bai.
-Ta, zergatik, Karlistak zialako?
-Klaro. Beste falloik gabe! Nere ahizpak'e ze, ze, ze? Eskailerak pregatzen ai zan emakumiak ze ingo'u?

10. Gazte-gazterik lanean hasi

- **Erref:** ERR-050/011
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:32:49. **Bukatu:** 00:35:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

<p>Hamahiru urte bete eta fabrika hasi zenerako, haur zaintzen ibilia zen Maritxu. Etxean ere hainbat egiteko izaten zuten: koltxoia artilez bete, izarak garbitu, etxeko fatxadari karea eman edo eta enkarguak egin.</p>

Transkripzioa

-Ta sosik ez zen /etzen/ ta! Behin edade bat ezkeoz, zerbaitentzako gauza zea danian, ni neoni're hamahiru urteko fabrika hasi nitzan lanian. Dirua bihar baitzen! Eta eskolatik ateratzen nitzanian'e, haurrak kontu itzea, sos bat ateratzeko. Eta bakaziyuak eta etortzen zianian'e ze uste'uzu, uain bezela? Lehen izaten zen koltxoia ardi larruakin... ardi...iliakin. Eta iten [gen, zen...] ohittura, pues urtero-urtero koltxoia ittekua. Eta bakaziyotan'e, koltxoia amai launtzen, zea, makillakin hua harro-harro itten. Ta almuhadak e'bai. Geo manta garbitzen. Eta buruan baldia hartu ta labaderoa, bat'e lotsik gabe.
-Nun zeon labaderua?
-Pues herriyan bi edo hiru bazian.
-Erdiko kaletik gertu?
-Ba!... Ba!... Ez, denbo haitan gaztiak giñan, ta bai!, Bai, bai...
-Orduan, kanporako ere maindiriak garbitzen?
-Ez.
-Ez. Etxerako?
-Etxerako. Maindireak eta koltxoia eta geo itxia zurittu're itten gendun

kariakin. Ta hura're urtero, geok! Geok!

-Zuek?

-Ui! Zea, atta ta lanea joatzen zian ta, hor nere ama ta... Anaiak... Osea, itxian dena! Lujoik gabe. Goseik gabe. Baño sentzillo-sentzillo.

-Karia nundik ekartzen zenuten?

-E?

-Karia nundik?

-Han saltzen zen. Almazenen.

-Altzan?

-Ez. Almazenian.

-Ah, almazenian.

-Bai, zea batek, igeltsero batek. Igeltserua edo... Bueno, igeltserua biñon geyo, gero denda ere bazun ta, han saltzen zen. Eta kariakin [ixten zen lehen-lehen]. Ta holako gauzak!

-Orduan zu umetatik ibili zea lanian?

-Bai.

-Etxeko lanetan eta umiak zaintzen...

-Enkarguak eitten... "Aizu Maritxu, etorri pixaka bat! Ekarriko nazu ogiya, edo ekarriko nazu..." Sos bat ematen bazizuten, hua ez gastatu eh! Amai eman. Ta beste etxe batian'e, eunero itten niyon, itten geniyon, bai, haik ondo zeozten jendia zen. Ba, orduan'e bai baitzian batzuk baino besteak hobeto zegoztenak! Ta haik itxian pues tartak eta in. Nei puska eman. Zuk uste'uzu nik hura jaten nula? Hua itxea eaman, ta han partittu, ta denak jan. Holako, hola bizittuak gea!

-Zintzo-zintzo.

-Bai. Zintzo jokatuta.

11. Etxean ura bai baina dutxarik ez

- **Erref:** ERR-050/012
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:35:37. **Bukatu:** 00:38:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

<p>Igande eta egun berezitarako jantzi bakarra izaten zutela kontatu digu Maritxuk, baita garbiketa pertsonalerako arraskan moldatzen zirela ere.</p>

Transkripzioa

-Eta erropa, berriz, zea, erropa bat armayuan ukuttu gabe, igandetako bakarrik. Hua meza nausira joateko; ta bezpeeta. O entieron bat o, joan behar bazendun inoako. Ta gainontzen... Ez oain bezela, holako koloria zapata, holako jantziya, holako... Ez, ez, ez, ez. Koloria ta ezer'e.

-Aste barrurako arropa bat ta iganderako beste bat.

-Igandekua, hua, ukuttu gabe. Uain ez da igarriten igandeako arropa den o asteunokua den, biño orduan bai. Orduan bai. Ta nik ze esango'izkizut, holako kontuak!

-Ta zuek dutxarik...

-Keba! Jesus, "dutxarik". Ezta pentzatu're! Iñun'e ez. Izango zen itxen bat noski [biño] keba! Urik'e, ura're, zea, bueno, ura izate gendun, bai. Biño ahal zan bezela arraskan garbitzen ziñan. Ta nee aman denboran berriz,

haik erriyoa. Haurra tripan izan arren, baldia hartu ta erriyoa. Nahiz otordurako, nahiz garbitzeko, pentsa, dutxa, ze garbitasunak!
-Baiña zuk ezautu zenun ura etxian.
-Bai, bai, bai. Ura bai. Ura bai.
-Ordun, ama baño hobeto...
-"Hombre"! Hua, hua Igeldotik Donostira hankutzik etortze zen. Etortze omen zen. Ta eliza're bai, zergatikan bizittu zen Igeldon baserri batian. Iranguen izena zuna. Ta hua, [...] nik egiya esan ez dakit /eztakit/, ez naiz /enaiz/ behin'e juan, baiño itsasuan inguruan. Ta itsasuan lapak biltzen, eta ahal zuten gauzak bildu, geo kamamilluak, ta ahal zutenak eta, Donostira, etortzen ziran haik saltzea, ta hain diruakin, hola beitu, ta aber oliyo pixka bat o zerbatte itxeko moduan. Gu, harren aldian, ondo. Jesus! Ta uain berriz, guen aldian, ze esanik ez. Uain kapritxua. Biño, ni neetzako, uain biño maitasuna gehiokin alkarrentzako. Ni neetzako e! Uain, nik [ez dut esaten] hala izango zala! Ni, nei, netzako bai, behintzat.

12. Ez dut nire herria ezagutzen

- **Erref:** ERR-050/013
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:38:02. **Bukatu:** 00:39:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Gaur egun baino txikiagoa zen Erreterria eta denek ezagutzen zuten elkar. Gerora, asko handitu da herria.

Transkripzioa

-Tratua, jendian arteko tratua, goxuagua? Denak ezagunak izango ziñeten...
-A, bai. Denak ezagunak. Eta, kalia ikusi ta dena hitz... ez hitz egin, "aio!", o sea, ya baziñakizun nun bizi zen, nola izena zun, ze famili zian... Dena, bai, bai. Bueno, lagunak, herriya're txikiyagua... Aber, uain nola hasi den herriya!
-Asko aldatu da...
-Ooooooooo... Jesus! Errenrei famosua! Errenrei famosua, "por desgracia"...
-Lehen politagua izango zan...
-Ez.
-Zu umia zinala, ez zan, politagua?
-Ni bizitu nitzan tokiyan, uain bezela: eliza ta ayunta ... Oain denak igual-igual daude.
-Bai, hori bai, baina etxe asko in dituzte...
-A, "hombre"! Lehen basarriyak ta zian tokiyan itxiak ta bua! Jesus! Nik ez dut ezautzen Renteiya, zergatikan eondu naiz ez dakit /eztakit/ hamalau, hamabost urte itxetik atera gabe, gauza ez ta, hanketatikan! Asiske nik nere herriya ez dut /eztut/ ezautzen. Uain, berriz, gutxiyo.

13. "Sociedad de Tejidos de Lino" ehundegiko lana

- **Erref:** ERR-050/014
- **Iraupena:** 0:08:07. **Hasi:** 00:39:10. **Bukatu:** 00:47:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak » Gipuzkoako lantegiak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Maritxu ehundegi batean aritu zen lanean, "Sociedad de Tejidos de Lino" izenekoan, nahiz eta bere garaian kotoiarekin aritzea gehiagotan egokitu. Goizeko seietan hasi eta arratsaldeko ordu biak arte aritzen zen, zortzi orduko txandan. Lanean euskara hutsean aritzen omen ziren eta emakume gehiago zegoen gizona baino.

14. Fedea galdu da

- **Erref:** ERR-050/016
- **Iraupena:** 0:05:50. **Hasi:** 00:48:15. **Bukatu:** 00:54:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Lehen bekatu zena gaur ere hala dela dio Maritxuk, eta egun, gizartean aurrerakuntza handiak direla onartu arren, fede kontuan atzera egin dugula uste du. Bere burua oso elizkoitzat du Maritxuk.</p>

Transkripzioa

-Lehen dena zen pekatu...

-E?

-Orain dena libre da ta lehen dena pekatu! Ta ze gauza zian pekatua?

-Lehen pekatua zena uain'e pekatua da. Uain ez da pekatuik ez delako /ez dalakoz/. Errenteiko bikayo jauna, don Roberto Agirre, ez dakit ezautuko zenun zuk... Bueno. Harrek esan zun lehen pekatua zena uain'e pekatua zela. Biño uain jendiak hartu du: "no hay pecaus", "no... Todo es mentira"... Zergatikan? Fedia galdu delakoz. Ez dago /ezto/ fedeik, ta fedeik ez den /ezten/ tokiyan "no hay temor de Dios" esaten dan bezela erderaz.

-Zuri orduan gehio gustatzen zaizu lehengua?

-U!

-Lehengo biziya.

-O! Buf! Egiya! Jesus! Nietzako ona [dut]

-Bai?

-Bai. Uain aurreapen asko dao. Hoi bai, konprenitzen dut. Gauza asko ondo daude. Biño beste asko ez. Ezin esango dut dena gaizki donik. Ondo're badago. Biño lehen zen... Beste bizimodu bat, lasayagua o nik ez dakit /etzakit/ ze esan'e. Uain alkarrentzako inbiriya ta, e!

-Jazteko modua ere asko aldatu da.

-Jesus!

-Lehen oso tapatuta ibiltzen ziñeten!

-Jesus! Noski! Noski! Uain bezela? Uain bezela? Uain biño errespeto gehio genun, emakumiak.

-Lehen ukalonduak eta paparra ta, tapatuta eraman behar izaten zan. Hori apaizak esaten zun?

-Ez zigun /etziun/ esan beharrik! Geok itten genun. Neri ez zidan /ezian/ sekula apaizak esan holako gauzik. Geok itten gendun. Geonen burua tapatzen gendun.

-Ta toki batzutan dantza itia helduta ez zegon /ezeon/ ondo ikusiya... Kongregaziyotik ere bota ta...

-Errenteian ez dute sekulan bota biñon Lezon ta hala esaten /saten/ zuten, bai.

-Ta zu kongregaziyokua izango ziñan...

-Jesus!

-Mariaren Alaba...

-Mariaren Alaba, ta Jesusen alaba ta Espiritu Santuaren alaba! Hi ze? Nee ilobak parra itten du /itte'u/

-Ni bai. Ni oso elizakoya. Oso elizakoya. Ta segitzen dut, ta segittu nahi dut. Oso fededuna. Nik egiya esango dut /esango'ut/. Ni uango txoakeiyak [ez diot /e'yot/], nik txoaiyak [...] oango kontuak. Txoakeiyak.

-Orduan joango ziñan misiyotara.

-E?

-Misiyoak eoten zianian Aste Santu aurretik edo...

-Jesus! Holako gauzatan numero uno!

-Bai?

-Entierrota're bai. Kanpanak, hoiek, entierrua! Zein zan ez nekien / e'nakiyen/, eta ala! Uain bezela, jo! Pintatzen ta jazten ta, hola, zerbait, abrigua o gañetikan jarri ta hartu mantilla, ta mantillakin eliza.

-Elizarako beti erabiltzen zen mantilla?

-Bai! Beti!

-Burua tapatuta beti?

-Gue, nere aiton-amonan baserria joateko, zea zen, eliza bat, konbentua, ta ohittura, izaten gendun, nee amak'e bai, nik'e bai, eta han sartu ta bolsilluan genun pañelua buruan jartzen gendun. Ze nahi duzu /nahizu/? Leheno hala zen! Leheno hala zen! Uain bezela jaun hartzea? Eozein moduz jantzita? Eliza juateko errespetua. Elizai errespeto haundiya zen. Leheno fede haundiya zen. Niretzako fedia galdu da ta dena galdu da! Ta pekatua leheno ez zena /etzena/ uain ez... Hoi ez! Leheno pekatua zena uain'e pekatua da. Hoi esaten da, gaizki esana. Ni, neetzako. Nik esaten dizut /esateizut/. Nik esaten dizut /esateizut/ nik pentsatzen dutena. Ni oso antiguala izango naiz. Biño ez zait inportik.

-Ez, ez...

-Ni naizen bezela naiz.

-Ta zuek orduan seguro eukiko zenutela etxian ur bedeinkatua...

-Jasus!

-Ur bedeinkatua, kandela bedeinkatua, erramua bedeinkatua, zean, ohian ertzian, ohian zean, ur bedeinkatua jarri, ta han bihatzak sartu ta ohian sartu biño leheno 'aitaren' ta, lehen-leheno bai! Uain ez biño leheno bai.

-Eta erramua gero zertako erabiltzen zen?

-Trumoia ta tximista hasten zunian, surtan erretzen zen. Ui! Trumoia ta tximista! Kandela bedeinkatua piztu, eta erramua hua, puska bat, zean, suan sartu. Tar, tar, tar, tar... Iten zula. Ohitturak, lehengo ohitturak!

-Hori zer zen, tximisten kontrako...

-Bai, ta geo, hilla, bat iten zanian'e, ur bedeinkatua, baso batian jarri, erramuakin, ta jartzen zen hillan aldamenian. Ta itten zitzaion, bisitan joaten zanian, responsua bota. Lehengo ohitturak hoik zian.

-Ta erresponsua botatzeko zerbait esaten zan /esatezan/?

-Bai! Aita guria.

- Aita guria.

-Geo "Requiem aeternam dona eis Domine. Et lux perpetua luceat eis Requiescant in pace." Esan, ta ur bedeinkatua bota. Leheno latinez asko

errezatzen zen.

-Bai.

-Bai.

- Ta zuek ogiyai iten zeniyoten gurutzia?

-Ohittura hoi, ohittura hoi, ikusi izandu dut e, biño gue etxian ez dut uste.

Ez naiz uain... Ikusi izandu dut.

15. Hileta ospakizunak eta dolua

- **Erref:** ERR-050/017
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:54:05. **Bukatu:** 00:58:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Hileta ospakizunen ostean, bederatziurrenean eta urte bete igarota ere elizkizunak ospatzeko ohitura omen zen.

16. Zinea eta antzerkia

- **Erref:** ERR-050/018
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:58:19. **Bukatu:** 00:58:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Errenteriako Onbide zinemara joaten ziren tarteka, baita Donostiara ere, antzerkia ikustera, tranbia "txuria" hartuta.

17. Aiton-amonen baserrira

- **Erref:** ERR-050/019
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:58:49. **Bukatu:** 00:59:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrira » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserrira » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Umetan sarritan joaten omen ziren aiton-amonen baserrira, gurasoek hango lanetan lagundu behar izaten zuten eta.

18. Etxean erditu eta haurrak berehala bataiatu

- **Erref:** ERR-050/020
- **Iraupena:** 0:04:56. **Hasi:** 00:59:46. **Bukatu:** 01:04:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak

Laburpena:

Don Jose Gantzarain omen zen Errenteriako praktikantea, etxerik-etxe emakumeei erditzen laguntzen hainbat aldiz ibilitakoa. Haurra jaio eta berehala bataiatzeko ohitura omen zen, zer gerta ere.

19. Apaizari errespetu handia

- **Erref:** ERR-050/021
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 01:04:42. **Bukatu:** 01:07:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Inor gaixotzen bazen, apaiza gaixoaren etxera joaten omen zen bere laguntzaile eta guzti. Gaixoaren etxerainoko bidean gurutzatzen zituzten guztiek, haur zein helduek, belaunikatu egin behar omen zuten, apaiza aurretik igaro arte.

20. Lehenengo irrati eta telebistak

- **Erref:** ERR-050/023
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 01:10:37. **Bukatu:** 01:11:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Etxeko lehen irratiak anaiak ekarri zuen. Bestalde, Maritxuk ez du iritzi onik telebistari buruz.

21. Soldata osorik etxera

- **Erref:** ERR-050/024
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:11:45. **Bukatu:** 01:13:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Astean hogeita lau pezeta irabazten zuen Maritxuk fabrikan lanean hasi zenean, eta bere anai-arrebek bezala, soldata osorik eramaten zuen etxera, gurasoei lagundu beharra zegoela ongi asko baitzekiten guztiek.</p>

22. Koltxoiak hustu, garbitu eta betetzen

- **Erref:** ERR-050/025
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:13:19. **Bukatu:** 01:14:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Haren etxean koltxoiak garbitu eta berritzeko zer ohitura zegoen kontatzen du maritxuk.

23. Etxeko garbiketa

- **Erref:** ERR-050/026
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 01:14:53. **Bukatu:** 01:15:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Egunero garbitu behar izaten zen sukaldeko lurra, eta belauniko egin beharreko lanak ziren haiek, etxeko gainontzeko zoruetaoak bezalaxe.

24. Erreterriako euskara eta hizkuntza kontuak

- **Erref:** ERR-050/028
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 01:16:44. **Bukatu:** 01:20:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Inguruko herrietako hizkerari erreparatu eta Maritxuk sumatzen du Erreterian hitz egiten zenarekin alderik. Horrez gainera, hizkuntza kontutan ohiturak aldatu omen dira: lehengo "konprenitu", "ulertu" omen da gaur, eta "agur" esaten da orain, lehengo "aio" esan ordez. Norabait sartu, denda batean, adibidez, eta "Kaixo" esan beharrean "Ave María purísima" indarrean zen garaiak ezagutu zituen Maritxuk.

25. Erreterriako fabrikak eta industria

- **Erref:** ERR-050/030
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 01:22:18. **Bukatu:** 01:24:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak » Gipuzkoako lantegiak

Laburpena:

<p>Papelera Española, Sociedad Tejidos de Lino, Olibet gailera-fabrika, "Alcoholera", Niessen, Pekin... Horiek guztiak eta gehiago ditu gogoan Maritxuk.</p>

26. Euskalduna eta espainola

- **Erref:** ERR-050/032
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 01:25:36. **Bukatu:** 01:29:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Maritxuri inork ez omen dio sekula euskaraz hitz egitea galarazi. Bere euskalduntasuna ukatzen ez badu ere, espainola sentitzen da. "Euskararekin bakarrik ezin da urrutira joan; espainolarekin bai". Maritxuren ustea hala da, eta argi adierazten du, gezurretan ibiltzea ez baitu maite.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com